

## TERESA CATALÁN SÁNCHEZ

Teresa Catalán Sánchez Iruñean sortu zen (1951). Pablo Sarasate Kontserbatorioan egin zituen musika-ikasketak eta bertan lortu zuen Pianoko eta Konposizioko titulua. Fernando Remacha, Juan Eraso, Luis Morondo, Luis Taberna eta beste musikari nabarmen batzuekin ikasi zuen.

Konpositore izateko prestakuntzari dagokionez, hobekuntza-ikastaroak egin zituen (horien artean, Musikaren Soziologiarena nabarmentzen da, Ramón Barce irakasleak emana), eta Konposizio Garaikideko Tekniken ikastaroa, Agustín González Acilu irakaslearekin, zeina bere Maisutzat baitauka.

Italian jarraitu zuen ikasten: Sienako Academia Chigiana-n Konposizioko ikastaroa egin zuen, Franco Donatoni irakaslearekin, eta prestakuntza eta klase magistralak jaso, besteak beste, hauengandik: T. Marco, L. Nono, Sammuell Adler, Yihzak Sadai, George Bengamin, Leo Brower eta Guy Reibel.

Musika Sormeneko eta Estetikako masterra egin zuen Valentziako Unibertsitatean, eta Artearen Filosofian doktoratu zen. Besteak beste, Merezimendu Zibileko Ordenaren Enkomienda eta Musika Sari Nazionala jaso ditu 2017an.

Honako erakunde hauetako kide hautetsia da: JAKIUNDE, Euskal Herriko, Nafarroako eta Akitaniako Zientzien, Arteen eta Letren Akademia; Arte Eszenikoen eta Musikaren Estatuko Kontseilua; Musikaren Kontseilu Nazionala, eta Espainiako Orkestra eta Koru Nazionalak; Errege Antzokiaren Kontseilua. Musikagileen Iruñeko Taldea sortu zuen eta horrekin lan handia egiten du musika zabaldu eta sortzen.

Nazioarteko Ikastaro, Topaketa eta Jaialdi askotako musika-atalak zuzendu ditu, eta enkargu ugari jaso, interprete askorenak eta estatuko nahiz nazioarteko erakundeenak. Halaber, maiz ematen ditu ikastaro eta hitzaldiak zenbait herrialdeetako jaialdi, erakunde, unibertsitate eta kontserbatorioetan.

*Sistemas compositivos temperados en el siglo XX* (2. argitalpena) tratatuaren egilea da eta *Música no tonal. Las propuestas de Julien Falk y Ernst Krenek*

obraren egileetako bat dugu. Liburu eta aldizkari garrantzitsuetan argitaratu ditu artikuluak, baita zenbait musika-lan ere Espainiako eta Alemaniako argitaletxeetan. Zenbait aldizkari espezializatutako erredakzio kontseiluko kide ere bada.

Disko, liburu, artikulu eta txostenak argitaratu ditu, baita bere obra eta disko batzuk ere (Espainian, Alemanian eta Hungarian), Estatuko zenbait kontserbatorioren ikasketa-programetan sartuta dauden lanak. Haren obrak jaiialdirik garrantzitsuenetan programatu dituzte, eta hainbat herrialdetan, hala nola, Alemania, Italia, Argentina, Errusia, AEB, Frantzia, Holanda, Kuba eta Errumanian.

Madrilgo Musikako Goi Mailako Errege Kontserbatorioko Konposizio eta Instrumentazioko katedradun emeritua da, eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Musika eta haren zientzia eta teknologiari buruzko Doktorego Programako Batzorde Akademikoko kide.